


ZER
ALDIZKARIA

428. zenbakia
2016 UZTAILA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

**Euskal leen gaia,
GIZAKIA (gizon-andre)**



**Durangoko azoka, da!
Euskal kulturaren plaza da!**

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2016-2017 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 49. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

49. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com


Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

“EUSKAL LEEN GAIA, GIZAKIA” (Gizon-andre) *Zenon Uriguen pasiotarra*



Euskal gizakia.

Aipagarria da, Barandiaran jaunaren esaera: “Euskal leen gaia, GIZAKIA”.

Baso, mendi, eta baserrian bizirik bere burua jatorrizko bikaintasuna adierazi, zaindu eta gorresgarri egiten alegindu da, menderik mende

Euskal gizakia, beti izan da Jainko-zale, aundi-zale, eta ortik sortzen dira, barru-barrutiko balio-tasunak: “adimen argia, biotz leiala, gogo bizia, eta asmo sendoak”.

Eta Euskal gizakiaren gogoa, ekintza aundietara doanean, nork, eten bere asmo bideak, eta gure erriaren aldeko eginkizunak?.

Gurea bezelako jendea, ez da edonun aurkitzen.

Gizakia da benetan gure lurraren emaitzik onena, sendo aritzen dalako, kementsua dalako arpegia emoteko dauan eragaitik, eta lanerako daukan gaitasunagaitik.

Zorioneko jarduna: “gizakiaren leentasuna, eta era batera, aberriaren etorkizuna.

Euskal nortasuna.

Gizakiaren arazorik beñena eta goragarriena da bere burua, bere nortasuna edo bere izakera, eta gero, bere egikera.

Giza izatearen leentasuna zaindu ta, eldeztu bear dogu guztion artean, bera dalako, beste egikera guztien sorburua.

Giza izatearen alde, buru belarri jokatu ezke-ro, andik etorriko dira, iturburutik ur gardena lez, gure erriaren garapena eta gure bizibiderako ondasun guztiak.

Aintzakotzak artzeko dira, gaur egun, gizakiaren alde egiten dira jardunaldiak.

An emengo bururakizunaren erabakiak, goiburuen elburu batera datoz: “gizakiz, bere nortasunaren eskubidetik erabagiten dabelako”.

Inoiz baño geiago astintzen dira gaur eta gizakia gauza guztien gaiñetik, zer guztien erdi guanean dagota, gizartearen onerako.

Gizona bera jabetu bear da bere buruaz, berak arakatu, landu eta jorratu bear dau bere baratza, edertasunaren lorak, eta emaitzak nai baditu.



Eta bere barnean josi ta jantzi bear dau bere jatortasuna izakeran, bizikeran eta egikeran.

Gizakiaren ardura, eder-kostagarriena, bere izatasunaren anditasuna da, “ekin, su ta ke”.

Orbela aizean.

Gaurko munduaren lasaikeriak ez dautso gizakiari laguntza aundirik emoten.

“Zenbat ta geiago ibilli gizonakin, gizatasun gitxiago izan dot” (Seneka).

Inguru berezian bizi gara: “Pentsakera nasaia, eta oitura azal utsezkoak, bultz eragiñik, or gabiltzaz, udazkeneko orbela aizean bezela”.

Sarri askotan gizakia bere buruaz aztuta ibilli ez ezik, bere nortasunaren aurka konturatu barik diardugu.

“Eta gizakiak nortasuna baztertzean, ez dago bururik eta norabiderik”.

“Zure etsaierik aundiena, zeure burua leenena”

Euskal erriak, larrialdi onetan, bete betekoko gizon giz-gorenak bear ditu.

Ortarako, makiña bat jardunaldi bearko ditu munduari aurre egiteko, eta bere gogo ta naimenean beti baikorra izanik, burubide gorenak bizitzeko.

Alderdiak eta Aberria.

Gizakiaren ondasunik ederrena, nortasuna dozu.

Baña argi ta garbi dago, nortasunean bizitzeko, laster sortuko dirala, aurrez aurre, erronka garratzak gizartean, politikan eta erakundeetan.

Emen dago koska ta korapilloa, gizartearen bizibidean.

Euskadi, errialde txikia da, baña politikan, alderdi ugariak agertzen dira.

Iñoiz baño geiago erdibituta eta zatituta daukagu gure aberri maite au.

Eta adi: “bere baitan zatiturik dagoen erria, errauts biurtuko da” (Lc.11-17).

Egiagaz gizon bakoitza, bere buraren jaun eta jabe gara, eta gure eritzi ta erabakiak betetzeko, eskubide osoa daukagu.

Origaitik gizarteko bizibidean, abegi ona emotea da gizalegea, bai gurea, bai besteena danean.

Jokaera ori ikasten ez dogun bitartean, ez dakigu zer eta zertarako dan demokrazia

Alderdikiden artean, sarritan sortu oi dira jauntxo-keriak.

Zenbat lege eta agindu, ezarri ditugu indarrez.

Euskal gizakiak ez dau nai menperatzaillerik, ez eta menperaturik.

Origaitik gogoz eta biotz batez abestuten dogu: “Agur jaunak” emen jaunak gara, “zuek eta bai gu ere”

Gizarte guztietan alderdi bakoitzak, bere egitasmoak ta egitarauak eukitea ona eta bidezkoa da.

Baña ezta onuragarria, beste alderdien aurka ekitea gogorkeri ta irañakin.

Alderdien arteko desberdintza eta gorabera artean, alkar izketa zintzoak egiñik, bakea eta alkartasun tolesgabea nai dogu.

Alderdi guztien gañetik aberria dago, bere garaipena ta garapena lortzeko.

Alderdi guztien elburua, beti Aberria.





Jarraibide goragarria.

Leengo urtean Uxue Barkos, Nafarroako lendakariak, ikasbide gailena emon dautso gure erriari, eta politika gaiari.

Bere alderdia, nausi izan zan Nafarroan, baña bertako erri agintari izateko, izugarrizko konponketak egin bear beste alderdiekin.

Alderdi bakotxak, bere egitasmo ta elburuak ditu politikan: “Zenbat buru, ainbat aburu”.

Zelan bateratu, errotu ta bermatu ainbeste burubide ezberdiñak, Jaurlaritza bat egiteko?.

Uxue, andre politikari zoliak, batzar luzeak egiñik esaten dautse: “Gai batean adostasuna nai dogu, zein da guretzat aberriaren leentasuna eta elburua?”.

Begirune aundiaz ikusten ditut zuen egitasmoak, egitarauak eta elburuak.

Baña gure jardunaldietan

aberrria dago, gure egitasmo egitarau eta elburu guztien gaiñetik.

Aberriakaitik ori zintzoro betetzen badogu, gizarteak, txalotu ta goratuko gaitu.

Batasun arrigarrian ari ziran jaurlaritza oberena danen artean moldatzen, erriaren serbitzari leialak izanik.

Benetan, jarraibide goragarria ta ikasgarria.

Euskal leen gaia, GIZAKIA

Benetan, euskal jardunaldi gorena eta elburu bikañena, gizakia da.

Baña, ikus egunkarietan datorren albiste mingarria:

Gure gizartean bizigiro kaltetgarria sortu eta zabaldu da “personas cosas”.

Zer dala ta?.

Gaurko gizarteak, lanerako eratuta dagoan makiña edo gauza bat dirudi, eta nortasuna gal-zorian.

Eta nortasunaren norabidea, nora?

Ona emen bere ondorenak:

a) Pertsona gauza da Bizibide onetan, light bizi nai da gazte lagunen antzera.

b) Pertsonaren gogoa, irrika eta adorea galdurik, biziera lasaia onartzen da.

d) Pertsona “masa” egiten da, jendetza burugabe eta naastua.

Gure Kristau bizikeran, dannon artean familia, Jaurlaritza eta giza erakundeak, pertsonaren nortasuna zaindu eta eraginkor egitea da gure jarduna.

Gizon-andre gustien leen gaia, nortasuna, duintasuna, eta jatortasuna da, beste **gauza** guztien gaiñetik.

Ez gara gauzak eta bai pertsonak, nortasun osoarekin **“Euskal leen gaia, gizakia, dannon artean”**.

“Mendiak mendiaren bearrrik ez, baña gizonak gizonarena bai”

Periko Zorritzto

(Asier Legarreta)

EUSKERA ZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2015eko sari leiketa. Irugarren saria.

Nire aita 1899.urtean jaio zan. Berak idatzitako idazkia topau neban etxea atontzen nembilela. Auxe inoen paper zarrean izkiriaturako berbok:

"Artu eben lenengo lana zera izan zoan; ardiok erakutsi eta bide batez ardien kortie.

Arek gordeta euki euen ara etxera joan orduko erropa-maletie. Ara etxera bidien gaztaina andi-andi bat eoan bidien, eta an, ba maletie gorde ein euen. Joan zan etxera ezebe barik, on zan moduen.

Gero bota eren ogera, lo eiten pastore-txabolara, eta an lo ein eta urrengo egunien etorri jakien barrero. Ardiok zer ein bitzien edo zertu, eta joan zan. Eta joan jakozan alantxik egun partidie. Ondo gobernetotziezan ardiek. Gusture egon zien.

Danak gusture egon zien.

Etorri zien erriko jaiek eta esatzien, ba arratsaldien ia berari be itxikotzien festara joaten.

Baietz esaeutsan amak. Amak pozik eukien a neskie, mutil eiten euen bertan baia neskie izen zan bera, eta ondo, oso pozik euki euen eta.

Bueno ba, bete euzen ardiek ondo, sartu euzen txabolan. Joan zan basora, gaztainen barruen ekezan beran erropak, jantzi ebazan bere erropak eta arek mutil erropak an itxieuzen gaztainen barruen, an bertan.

Joan zan erremerira elegante jantzite eta joan zanien erremerira, errira ailegeta inguruen, gazte bat zertu ein jakon eta ak.

Aa gaztie ezetzeuen, etxeko uzaba izen zan, beren uzaba aixe izen zan.



Asi die berbetan eta ba, enamorau die. Arkalaz gustu die eta egune emoeben an, arratsaldien moduen, eta gero iluntzie.

Eta mutilek esatzen:

- Etxera lagundu bitzut.

- Ez, ezetan bez ezpabe nire aitek ilgo neu mutilaz joan nazela entzuten badeu eta.

Mutilorrek bertan itxi euen ainbeste gure izeotzen neskeri. Berbetan:

- Beno amentxe partiduko gara orduen eta partidu zien.

- Bier etorriko zara? -esatzen mutilek, eta:

- Eztakiat ba, aitek ixten baost bai -esatzen neskiek.

Joan zan neskiari etxera ta, neskak ezotzien itxi gure izen erremeriara joaten, baia a neskak baino arinau etxera joan zan eta arek amamari, etxien eken amamari, kontuek kontotzezan, an zer ikusi euen eta erremerien zertzuk ikusi ozen kontotzezan.

Etxera etorri ziernean neskek e:


- Nun egoaz i ba? I bazterren baten sartute egoaz. Inun be ezaz ukusi.

- Nik bai zuek, ikusi zaituet. Eta zu mutil bat az pasioan ibil zara -esautzen neska bateri.

Neska bat nobioagaz ibil zan, eta bera uzabagaz pasioan, baia arek ezeben a ezetzen. Eta eurek esan ei etzen:

- Eta uzaba eztok ukusi? An neska elegante bat az pasioan? -esan ei otzien etxeko kriedak.

-Asko ebilen an elegante ta! -berak kontestau eiotzien.



Gero, ailege da bigarren egune. Esotzie ba, aber itxikotzien atzoko moduen joaten erremeriera, eta baietz. Uzabak barrez pozik, beranari be itxi deion. Ak ez euen uzabak pentseu a danik, baia beranari be itxi deion pozik baietz, joateko.

Joan da oingo egunien elegantiau, uzaba ori zietz enamoreute geratu jako eta gero ez deu jakin zer ein be, eta emootzo sortijetxu bet, eta aber barriro alkar non ikusko eben edo zer eingo eben. Ez dakiela ba, eta partidu dire olan.

Joan die etxera eta uzaba gaixotu ein de. Uzabari bere amak eiten izentzen bazkariteko beti opiltxu bet, eta uzaba ori geixotu danien,

- Uzaba nun de ba? -berak preguntetan izotzie.
- Gaixorik jekuk -aspaldi beten etxoat ukusi eta.
- Geixorik? Neuk osatukot. Itxiztezu orixe eguerdiko opiltxu ori neuri eiten eta neuk osatuko dot. Neuk osatu biot.

- Ixilik egoadi!

Zorritzto esatotzien, eta:

- Ik zorriren bat botakotzek eta gero atarako gaixak danok etxetik.

Eztotzien itxi gure izen kriedak eiten opil ori. Baia ain estimedu euki euen amak,

- Ba eindeiela -esaotzan amak.

Ein deu opil ori eta sartutzo erdi-erdien berak emoneko sortijetxu ori opileri eta eroan dotzo beran amak bazkarie ogera.

Zatitu deuenien a opiltxue, berak neskieri erregale otzen sortijetxue antxe erdien tope dau mutilek. Eta mutilorrek esan deu:

- Nok ein deu au opileu?

Eta neskak beti entzuten eta:

-Ene Periko! Ointxe az akabue ba i! Ointxe joan bijuk danok etxetik kanpora.

Amak atzera:

- Ene semetxue, zer deko ba? -esaotzo eta- nik esaotzut aber nok ein deuen- mutilek atzera. Eta ba, gure Perikok ein jok.

- Perikok egin deu? Eta bai.

- Datorrela ona -esaotzo mutilek ogetik. Eta ama orrek sillie bere kendutzo apurtu ez deien, bere pentsamenduetan, eta ba, deituotzo.

Joan da mutil ori, pastoreori, baia ak e, ara joan zanien e, ondo orraztute eroangoeuen ule ori, eta txapelagaz tapeute.

Eta esotzon atera ailega orduko:

- Zelako enbrie edo zer zara zu? Eta bai
- Ni aitek ilteko basora botaikoa, berari gatzak aragiari lez baino eztotzedala gure eta ilteko basora botaikoa.
- Aber, kenduizu ori txapeleri -esantzo eta,
- Zu esan duzen berbakaz konforme zara? -esaotzen mutilek bertan, arek euren pentsamenduek ei eresan aitek ixten botzen neskieri eta.

Neskiak bai esaotzo mutileri. Eta aor gero, ekarri erezan erropok eta aor ipini eren bodie. Baia neskiek esaotzien bodara irulau erreinuteko erregiek ekarteko bezkaiten.

Ekarri derez danak, ze mutil ori aberatsa zan, eta ipini dere bazkariori eta ipini derez jaten danak.

Esaotzien neskiek ari jatekoari gatzik ezebe ez ipinteko, danak gatz barik ipinteko. Artzen ei euen erregeorrek au eta bestie be, eta ezin jan, gatz barik ezin jan. Eta lotsatute gelditu kasik errege ori.

Eta beno, bezkarie be akaba zanien, neskiori pase da aber danak ondo dauzen, preguntotzie ondo dauzen banan-banan danari eta ba, ondo danak. Eta aiteana ailege danien preguntotze ari be bestiei moduen eta

- Ba, ondo -esaotzo. Eta:
- Ondo ez, -alabiek esaotzo -
- Ondo ez -auxe kontestaotzo-
- Ondo egoteko, a biotza eta nire atzamar txikie artu zainuzanien e... Akordetan zara?

Aite ori zertu ei zan zietz, paseute geratu ei jakien eta -bueno ba, ni aixe naz. Aite orrek artu ei eban alabiori antxe, eta a izen ei zan gatzak aragieri gure izeotzon ori.

Eta erreinurik erdie areri emontzo. Aberastute itxi eban ziero."

Au irakurri nendunean ulertu neban nire aitak ainbeste urtetan gordeta eukan sekretua. Izekoa zan neskatilea, eta gu be etxe onekoak ginen, izekoak alantxik gura ebalako.





DURANGOKO AZOKA, DA! EUSKAL KULTURAREN PLAZA DA !



Durangoko leenengo euskal liburu eta disko Azoka 1965ean egin zan, Andra Mariko elizpean. Abenduan ez ezik, zemendiaren 1ean be bai, Domu Santu egunez.

Sortu barri zan Gerediaga Elkarteak antolatu ebazan ekitaldien artean leenengoetarikoa izen zan.

Frankismoaren diktadurapean azoka ark elburu nagusi eta argia eukan: Euskal Erriko liburugintza eta disko-gintzaren ekoizpena ezagutzera emotea.

Elizpean merkatua izaten zan zapatu goizetan, eta leenengo urte aretan be goizez oiko merkatu egin zan. Arratsalderako, bizpairu orduko lanen ostean, prest egoan liburuen eta diskoen azoka. 19 erakusle euki ebazan asierako Azokak.

1974. urtera arte, Andra Mariko elizpean egin zan urtez urte Azoka.

Baiña tarte aretan urtebeteko etena be egon zan: 1967an ez zan Azokarik egin, Andra Mari elizan konponketalanak egin ebezan eta baldintza egokietan ezin ebelako ezer antolatu.

Aurreko edizioen azokak artutako oiartzuna ez zan sasoiko gobernadore zibilaren gustokoa. Atzaki bila, erlijio arrazoiak aipatu eta Andra Mariko elizpean egitea galerazi eban. Merkatu plazan egitea izen zan urtenbidea.

IX Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka merkatu plazan egin zan. Eta modu orretan, merkatu plazan egin ebazan urterik geienetan, 1974tik 1996ra arte.

Denbora tarte orretan, Gerediaga Elkarteak iru urtez jarraian Euskerazko Liburu eta Disko Azoka antolatu eban: 1986etik 1988era. Baiña saiakera orrek ez eban eukin antolatzaileek espero eben erantzuna eta ez zan geiago egin.





Durango, apurka-apurka, liburu eta diskoez arago, euskal kultur eragileen topagune biurtu da. Merkatu plazaren lau ormak txiki geratu eta Durango erriko orube askotan karpa zuriak be ipiñi bear izen dira bisitariei lekua egiteko.

Asieratik, euskeraz eta euskal munduaz be zerikusia deukien ekoizpenen erakusketa eta salmentarako azoka izen da.

Liburuak eta diskoak nagusi ziran asierako urteetan. Gerora DVD, bideo eta euskarri askotako ekoizpenak jarri dira ikusgai eta salgai. Urtero-urtero Durangora etortzen zan jendetzari esker, 2003tik Landako erakustazokara salto egiteko aupada naikoa izan eban Azokak.

Gaur egun Euskal Erriko argitaletxeen eta diskoetxeen lanak ezagutzeko plaza paregabea da Durangoko Azoka. Idazleek eta musikariek euren irakurle eta entzuleekaz egoteko aukera deukie. Lan barriek aurkezteko eta ezagutzeko modua izaten da. Baiña asierakoa ez zan moduan, gaur egungo azoka be ez da liburuen eta diskoen azoka bat soilik.



Abenduko leen egunetan, euskaldunen eta kulturzaleen topaleku izaten da Durango, eta era guztietako publikoarentzat kultur eskaintza zabala egoten da.

Azokako aurkezpen aretoan, argitaletxe, diskoetxe, kultur alkarte edota edozein gizarte eragilek lekua eukitzen dau bere proiektu edo lan barriaren aurkezpene egi-teko.

Azokari lotuta, Aur Literatura Aretoa zabaltzen asi zan urtero. 12 urte arteko ume eta gaztetxoak literaturaren munda modu aktiboan gerturatzeke gunea. Gaur egun, Saguganbara. Apurka-apurka, azken urteetan, gune barriak sortzen joan dira Azokaren bueltan.



2008an, sortzaileek eurek, Aotsenea gunea sortu eben, Gerediaga alkartearen laguntzagaz batera, beraien proiektuak ezagutarazteko, zuzeneko edo solasaldien bidez. 2010ean, Irudienea eta Eszenatokia be batu ziran Azokan, ikus-entzunezkoak eta arte eszenikoak be kultura direla aldarrikatu eta leku propioa emotearren. 2012an sortu zan gune barriena: Kabia. Kultura digitalaren eredu barrien bueltan alkar ezagutu, esperimentatu eta ezagutarazteko.

Urte orren bueltan be, Plateruena Kafe Antzokia lotu jakon Azokari. Gune barrie ez izenda be, Durangoko eta Euskal Erriko kultur proposamenekaz asetzeko, euskaldunen kulturgune erritarra da.

Azokak, orain, Durango iri osoa biurtu nai dau kulturaren plaza...

Negurik ez gendula...?

Martxoaren 10'an asi naiz berriketaldi au idazten, agian, denbora puska bat joango da argitaratzerako; baiña gaurkotasunik ez dula galduko esango nuke.

Jarri zaigun giroak bultzatu nau ontara, etxe barrurako ohea bai dago kalean paseorako baiño.

Bi illabete pasa ditugu aurten negurik ez gendula esaten, leku ederrean! Otsaillaren azkena eta martxoaren asera ari zaizkigu bestelakorik erakusten. Euri, elur, kazkabar erauntsi, danetik izan degu; aize indartsua lagungarri zutela. Aize, orrek. olatuak ere arrotuko ditu noski, itsas-ertzean zerbait daukatenak neurriak nola jarri pentsakor dirala. Telligentak langilleak ere izango dute zer egin. Ibaiak gainezka egiteko zorian dijoaz eta gaitzerdi ontan errenditzen badira.

Eta, bart izandako tximitx-trumoiangatik zer esan? "Martxoako trumoiak berrogei eguneko negu", ikasi gendun guk. Beraz, esaera zarrak diona egi biurtzen bada, negurik ez gendularen usteak bukatuko dirala esango nuke.

Eguna luzatzen asko ari du, eguzkia indartzen ere bai, baiña udaberriko neguak askoz gaitz geiago egiten du abenduko eta urtarrillekoak baiño; bizi-berritzen asita dagon izadia zapuztuta uzten bai du.

Ni oso oker ez banago, 1947'ko urtea izango zan, maiatzaren lenengo egunean etxe-atarian elurra ezagututa gaude; orduan ere baserritarrak estuasunak genitun, ganbarak us-tuta eta kanporako girorik ez. Artzaiak ere pasako zituzten berenak eta bi. Adibidez, zenbat txori edo basoko pistiren kabiak zapuztu ote ziran?

Gauz danak beren garaia dute, ta beren bidetik ertetzen diranean ibiltzen dira-edo, gera gaizki. Oraindik maiatza urruti dago, bizi bagera ikusiko degu zer gertatzen dan.

1.- Uda kutsuko abendua zan
eta berdin urtarrilla,
kristaurik ezin abia eizen
giro obearen billa;
amasei zenbakiari noski
aurretik jarri bi milla,
aurten negurik ez omen gendun,
da ala izan dedilla.

2.- Otsaillaren azken aldera
da martxoaren aurrenez,
euria pozik artu genduan
zerbait legorta gendunez;
ondorenean elur, kazkabar,
nola gau ala egunez,
jakintsu asko gerade baiño
guk ezer egiterik ez.

3.- Aizean bidez ondamen pranko
izan dute tellatuak,
olatuakin itsats baztarrak
asko dira kaltetuak;
kamio asko elur, kazkabar,
izotzakin jelatuak,
txoper asko dirá joan nai baiño
eziñean geratuak.

4.- Ez gaitezala geiegi arrotu
maiatza etorri artean,
eguzki eder dizdilaria
ikusi arren tartean;
badakizute ijitoak amona
jan zutela elurtean,
martxoa zala esaten dute
milla zortzireun urtean.

5.- Poztutzen gera egun sentiko
txori kantuak entzuten,
da ez da zailla asmatutzea
zer erakusten diguten;
zail izango da negu guztia
negurikan gabe juten,
bart arratseko trumoiak ere
zerbait esan naiko zuten.

Txomin Garmendia



Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (XII)

Nortzuk izan ziran Kolon'tar Juan eta Kolon'tar Margalida ?

Aurkezpena.

Margalida mallorkinez, pitxi edo txirlarria⁽¹⁾ dala esangura dau, eta Kolon'tar Juanen alaba izan zan, euren bizitza Felanitx erritxoan "ALQUERIA ROJA"ko lur ondasunean egin da (gaur Son Ramonet dana, Felanitx uritik 2 km. ingurura eta SANTUERI gaztelu inguruan).

Eta nor ote zan Margalinda ?.

Margalinda, Nafarroako errege IVn Karlosen denbora pasa baten antzera eta bere aitagandik atxilotzeko itzaroten egon zan denboran, laguntzen eutson andre bat zan.

1.459ko urte azkenetan beragaz maitekerietan ibillita, 1.460ko Bagillaren illean seme bat euki eben, "TERRA RUBRAKO" Kolon'tar Kristobalen izena ipini eutsoenai, eta IVn Karlosek,



lau seme alaba bere gain artu ebazanetik, Kolon'tar Kristobal izan zan bat.

Felanitx'en, Son Koloneko Kolontar Juan, Kolontar Kristobalen aitite onek, ia txirotu egin zan, bere etxe ta lurraren irabaziak Felanitx'eko zuzendari, idazkariari eta alkate biurdikatzailleai bir-erosi, eros-sari, edo aitzakia lez ainbat diru emon bear eutsoezelako, eukezan seme biak Kristobal eta Gillaume Kasenobe'tar Koullon oneik Probenzan atzerituta, Anjou'tar Renato Probenzako erregearen alde egon ziralako,

(1) Margalida = mallorkinez "perla" dala esangura dau.



1.450-1.453ko “Germanias”en iraultzan, auzitegiko ta erritarren arteko guda gogorra amaitu zanetik.

Kolon’tar Juanen seme oneik, sekula ez ziran itzuli oster a Mallorkara, ziur bertan eriotzea itxaroten euki ebelako.

Baiña Kolontar Juanen seme ta Margalidaren neba auek jakiteko nortzuk ziran, esan bear da: “Guillaume de Kasenove Coullon”, Italian “Colombo” lez eta espainitarren artean “Colon”en izenagaz ezagututakoak, Anjou’tar Renato Probenzako erregearen serbitzuan egon zirala, eta Frantziako itxas-jazarle edo itsas-lapurren ontzi nagusi edo Ontzi Nagusien Amirala izan zala Margalidaren neba au, eta Margalida ta IVn Karlosen seme Kolontar Kristobalek, bere Ontziren-Amiral osaba nagusi onegaz, ikasketa nagusiak egin eta gero, ainbat denboratan beragaz ibilitakua zala, gero agertuko dan lez.

**Emen, Kolontar
Kristobalen bizitza
argitzeko oso garrantzi
aundikoa dalako,
Probenzako erreñuaren
edestiko bizi kondaira
labur bat azaldu bear
dogu, eta baita legez
zelako aldakuntza egon
zan itxas-lasterkari
edo itxas-jazarle⁽¹⁾, eta
itxas-lapurren artean⁽²⁾.**

Probenzako erreñua, Frantziko lurraldearen ego aldean, Rodano ibaia, Lur-Arteko itsaso eta Italiako lurraldeak inguratzen dabe, bere edestiko Uri nagusia Aix-en-Probenze izanda.

Beren lurraldea, Rodano ibaia-
ren agoak, Bar ibaia, Alpe-
seko bealdeak, eta Baukluse ta Itsas-
tar-Alpeak osotzen dabe.

Paleolitiko-Neolitikotik, euskal-
dunak ziran lur orreitan bizi zi-
renak.

Eta Euskaldunei buruz, garran-
tzizko gauza da, 25etik 101eko
urte bitartean bizi zan Silio
Italiko olerkariak esan ebana:
“Probenzako alor edo soroak⁽³⁾
leenengo landu ebezanak Auña-
mendi edo ta Pirineosetik bera
joan zirenak zirala eta euren ar-
teko ezagutzan ulertu zitezen
lurraldearen izena aipatzea bea-

(1) Itxas-lasterkari = corsario. (2) Itxas-lapurrak = piratas. (3) Alor edo soro’ak = campo de cultivo.

rezkoa izanda, “Sicanos” zirala esan eben.

“Sikano” berbea, baleike Auñamendietan⁽¹⁾ dagon “ZINKA” ibaiaren izena izatea.


Eurak esaten dabe ez dagozela ziurtasun guztiagaz, baiña zeozer izan bear, beste ibairik ez dagoelako izen orrekin.

K.a. VII-VIn gizaldietan, erria fenizioak irasi eben.

K.a. IVn gizaldian griego fozenseak, Massaliako Uria (Marseille) sortarazi eben.

K.a. IVn eta IIIIn gizaldian keltiarrak sartu ziran.

K.a. IIIn gizaldian, erromatarrak sartu ziran eta “Galia Narbonense”ko lurraldeakaz osotu eben lurralde ori.



K.a. 123 urte inguru, fenizioak Marsellako Uria berriztu eben.

K.o. Vn gizaldian, Bisigodoek menperatu eben. VIIn gizaldian frankoak. Eta VIIIn gizaldian arabiarrek. Eta Karlos Martelek Berduneko ongundearen bitartez 843ko urtean berrezkuratuta, Lotarioren eskuetan geratu zan.

Karlos Buru-soil'en eskuetan ondorengo geratuta lur inguru ori, onek Probenzako leen erreñuan biurtuko eban.

947ko urtean Borgoñako aginpean ipini eban, eta ondore 1.032ko urtean Kaizarren agindura.

1.125eko urtean ondorengo lez, IIIIn Berenger'tar Ramon Bartzelonako Kondea eta Toulouseko Kondearen artean bananduta geratu zan.

1.246ko urtean Ajouko etxearen aginpean geratu zan, eta orren bitartez 1.277ko urtean Napoleseko erregetzagaz lotuta geratu zan.

(1) Auñamendietan = Pirineos.

1.266-1.285eko urterarte, Napoles eta Siziliako errege VIII In Luisen seme, Anjoutar I Karlos izanda.

Eta I Anjoutar Karlosen errege denbora onetan Aragoiko III In Pedrok, Sizilia menperatuta Aragoiko erregetzagaz alkartu eban.

1.284-1.309ko urte bitartean Anjoutar II In Karlos izan zan Napoles eta Siziliako erregea.

1.345-1.386ko urte artean, Anjoutar III In Karlos, Napoles eta Ungriako errege.

Probenzakako Anjoutarren azkeneko agintaria, Renato izan zan.

1.408an Urtarrillaren 15ean jaio zan Anjoutar Renato, II In Luis erregearen seme au.

1.419ko urtean Napoleseko errege II In Luisen seme Anjoutar Renato ondorengo lez eta 11 urte euki zituzenean Lorenatar Isabelekin ezkondu eban.

1.434ko urtean I Renatok, eta Aragoiko Vn Alfonsok, borroka latzak euki ebazan Napoleseko erreinuaren gora beran.

1.442ko urtean, I Anjou'ko Renato aragoitarrak Napolesetik bota ebenean, Taraskonen auzotu zan.

1.450ko urtean Mallorkako auzitegikoak matxinatuta, Vn Alfonsori agindu eutsoen erregearen aulkia.

1.452an Otsaillaren 28an il zan Lorenatar Isabel erregina.

1.454an Iraillaren 11n Anjoutar I Renato erregea, osteraz ezkontzen da Labaltar Juanagaz.

1.466an Dagonilaren 20an Katalanak, Mallorkakoak egin eben antzera, Aragoiko Vn Alfonsori eskaini eutsoen erregetza.

1.470ean Abenduaren 16an Anjoutar I Renatok, osteraz agindu eutson bere seme Juaneri erregetza berrezkuratu egian, baiña Bartzelonan il zan.

1.471ko urtean Anjoutar I Renato, Taraskonera joan zan bizitzen.

1.479an Urtarrillaren 19an siñatu ziran Probenza ta Kataluñako bakeak.



Anjoutar I Renato erregeak, bere loba zan du-Maine'tar III Karlos Probenzako Kondea, ondorengo errege lez izendatu eban.

1.481eko urtean Probenzako lurralde au du-Mainetar III Karlos Konde onen jabetasunean egonda eta ez ebelako ondorengorik euki, Frantziko errege XIn Luiseri aldatu eutson ondorengotasuna.

Eta 1.486ko Urrillan du-Maine'tar IIIIn Karlos au il zanean, betiko aldatu zan Frantziko erregetzara, Probenzako Konderri au.

Itxas-lasterkari ta Itxas-lapurrak.

Itxas-lapurarren irudia, ez zan itxas-lasterkariak irudizko izae-ran euki eben antzekorik be, euren leen eta askeneko ardura, lapurretan egitea bakarrik izan zan.

Bigarrenaren ardura alderantziz, errege edo ta erriarteko agintaritzatik artzen eban eskugo edo baimenaz, etsaiezko erri baten itxas-ontziak erasotu, menperatu edo ta arrapaka kendu, eroaten ebazan egitamuzko argibide ta balio guztiak, izaten zalako.

Eta gure Kolontar anai biak, Kasenobe ta Kolontar Gillaume, Frantziko Aitor-seme⁽¹⁾ ta Ordezko-Almirante⁽²⁾ oneri, Frantziko XIn Luis erregeak bialtzen



eutsoen eskutitzetan «dit Koulon» idazten eutson.

Kolontar Kristobal, Kolon'tar Kristobalen osaba, bere anaiaren antzera bardin ibili zan, baiña aiñ ospe aundirik euki gabe.

Gero eurak baiño ospe aundia artuko eban euren loba Kolontar Kristobalek, IVn Karlos Nafar errege eta Margarita'ren semea zanak, Ameriketako lurraren ezaguneraziakaz.



Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.015'eko urtean Epaila'ren 21éan

(1) Aitor-seme = escudero. (2) Ordezko-Amirala = vicealmirante de Francia.

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



Sudoku

	7		2		1		3	
3								9
		9		6		5		
	6	2		4		8	5	
	3			2			4	
	9	8		1		2	7	
		1		3		7		
8								4
	4		5		9		6	

6	1	2	3	8	5	7	4	9
9	3	5	7	2	4	1	6	8
6	3	5	7	2	4	1	6	8
7	8	1	4	6	9	2	3	5
1	4	3	6	5	2	9	8	7
5	7	9	8	1	3	6	2	4
8	2	6	4	9	7	3	5	1
4	6	7	9	3	8	5	1	2
3	5	8	2	7	1	4	6	9
2	9	1	5	4	6	8	7	3

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian,errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

AGUR JAUNAK

Jaunak agur,
agur t'erdi
Danak Jainkoak
eiñak gire
zuek eta
bai gu ere.

Agur Jaunak,
agur,
agur t'erdi,
emen gera,
Agur Jaunak

Arretxinaga (Markina-Xemein)